

Osakidetza Administrazio Kontseiluaren aldi baterako kontratazio-zerrenden sistema arautzen duen 2004ko urtarrilaren 26ko Akordioaren 9-3 atalean araututakoarekin bat (2008ko maiatzaren 29ko Akordioak egokitzen duena), eta 2011ko maiatzaren 9ko Akordioaren 10.4 atalaren arabera, jakinarazten da euskarako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzen dituzten ziurtagiriak aurkezteko epea zabalitzen dela, arau hauen arabera:

- Eskabideak aurkezteko **epea 2012ko urtarrilaren 10etik 20ra** izango da, biak barne. Epez kanpo erregistratutako eskabideak baliogabeak izango dira.
- Pertsona interesatuen eskura **eskabide-eredu** bat dago, jarraian doana. Eskabide horrekin batera, euskararen ezagutza egiaztatzen duen dokumentuaren **fotokopia**.
- **Eskabide bakarra** aurkeztea nahikoa da izangaiak inskribatuta dauden zerrenda guztietarako.
- **2011raino Osakidetza egindako deialdietan hizkuntza-eskakizunen bat** egiaztatu dutenek, ez dute zertan aurkeztu eskabiderik ez dokumenturik, lortutako hizkuntza-eskakizuna **ofizioz** konputatuko baita. Tratamendu bera izango dute Osakidetza **baliokidetutako** euskara-ezagutzaren tituluek ere.
- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko den **martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuaren, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren eta indarrean dagoen gainerako araudiaren arabera, eskabideak aurkezteko azken egunean egiaztatutako euskara-ezagutzak** hartuko dira aintzat.
- **Aurkeztutako euskara-ezagutza egiaztatzen duten dokumentuak** Datuak Babesteko Euskal Agentzian erregistratutako **“Lanpostuak aukeratu eta betetzea” eta “Giza Baliabideen Kudeaketa bateratua” izeneko fitxategietan sartuko dira**, behin Osakidetza hizkuntza-eskakizunekiko baliokidetasuna aitortutakoan. Pertsona interesatuek Fitxategietako datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendaritzara jo dezakete: Araba kalea, 45; 01006, Vitoria-Gasteiz.
- Euskara-ezagutza egiaztatzen duten dokumentuak aurkezten dituztenek **berariazko baimena** ematen diote Osakidetza dagozkion erregistroetara sartzeko, **dokumentu horien benetakotasuna egiaztatu ahal izateko**.
- Zerrenden **aldaketa** hori erabat eraginkorra izango da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian zerrenda berriak argitaratzen direnean, **2012ko lehenengo lauhilekoan**.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urtarrilaren 9an

**HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN EGIAZTAGIRIEN AURKEZPENA**
**PRESENTACIÓN DE ACREDITACIONES DE PERFILES LINGÜÍSTICOS**

ALDI BATERAKO KONTRATAZIO-ZERRENDAK

LISTAS DE CONTRATACIÓN TEMPORAL

IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS:	NAN / D.N.I.:
HELBIDEA / DOMICILIO:	TELEFONOA / TELÉFONO:
KATEGORIA (K) / CATEGORIA (S):	

**ADIERAZTEN DU**

Goian aipaturiko kategori(et)ako zerrenda(k) aldatzeko, ondorengo dokumentazioa (\*) aurkezten du. Halaber, Osakidetzari baimena ematen dio euskarako ziurtagiri eta tituluei buruz aurkezten duen informazioa dagokien erakundeetan egiaztatua izan dadin eta Osakidetzako Pertsonalaren Erregistroan erregistratua izan dadin

**EXPONE QUE:**

Presenta la siguiente documentación (\*), a efectos de modificación de la(s) lista(s) de la(s) categoría(s) mencionada(s) arriba, y da autorización para que la información que aporta sobre certificados y títulos de euskera sea verificada en los correspondientes organismos y registrada en el Registro de Personal de Osakidetza:

**1. HIZKUNTZA ESKAKIZUNA**
**PERFIL LINGÜÍSTICO 1º**

IVAPek egiaztatutako 1. HE
HABEren 1. maila
HEOren Tarteko maila (B1)
HEOren 3. maila. HEOen antzinako plana

PL 1 acreditado por el IVAP
Primer nivel de HABE
Nivel Intermedio (B1) de las E.O.I.
Certificado 3er curso EOI. Plan antiguo de las E.O.I.

**2. HIZKUNTZA ESKAKIZUNA**
**PERFIL LINGÜÍSTICO 2º**

IVAPek egiaztatutako 2. HE
HABEren 2. maila
Ertzaintzaren 1. HE
Irakaspostuen 1. HE eta baliokideak (IGA eta GUMA)
HEOren 4. maila egiaztatutakoa. HEOen antzinako plana
HEOren maila Aurreratua (B2).
HLEA Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria

PL 2 acreditado por el IVAP
Segundo nivel de HABE
PL1 de la Ertzaintza
PL 1 del Sector Docente y equivalentes (IGA Y GUMA)
Certificado 4º curso EOI. Plan Antiguo de las E.O.I.
Nivel Avanzado (B2) de las E.O.I.
HLEA Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria

**3. HIZKUNTZA ESKAKIZUNA**
**PERFIL LINGÜÍSTICO 3º**

IVAPek egiaztatutako 3. HE
HABEren 3. maila
Ertzaintzaren 2. HE
EGA eta hurrengo baliokideak:
- Labayru ikastegiaren 3.a, 1982/09/19 baino lehen emana
- Euskal Filologiako lizentziatura
- EAEn lortutako Euskal Filologia alorreko Irakasle-Diplomatura
- Irakasle-Diplomatura, euskaraz egina, nahiz Bizkaiko edo Gipuzkoako Irakasleen Unibertsitate Estola Publikoan 1985etik aurrera lortutakoa, nahiz Donostiako OHoko Elizbarrutiko Irakasle Eskolan edo Eskoriatzako OHoko Irakasle Eskolan 1984tik aurrera lortutakoa.
Euskaltzaindiaren "D" agiria
Irakaspostuen 2. HE eta baliokideak (EIT)
HEOren Gaitasun maila edo 5. maila. HEOen antzinako plana
E.A.E.ko HEOren Gaitasun Maila (C1).

PL 3 acreditado por el IVAP
Tercer nivel de HABE
PL 2 de la Ertzaintza
EGA y los siguientes equivalentes:
Tercero del Instituto Labayru, anterior al 19/09/1982
Licenciatura de Filología Vasca
Diplomatura de Magisterio, Especialidad Filología Vasca, realizada en la CAV
Diplomatura de Magisterio, cursada en euskera, bien en la Escuela Pública de Magisterio de Bizkaia o Gipuzkoa, obtenido a partir de 1985, o bien en la Escuela Diocesana de Magisterio de San Sebastian o en la Escuela de Magisterio de Eskoriatza, obtenido a partir de 1984
Certificado "D" de Euskaltzaindia
PL 2 del Sector Docente y equivalentes (EIT)
Certificado de Aptitud o 5º curso de las EOI. Plan antiguo de las E.O.I.
Certificado de Nivel de Aptitud (C1) de las EOI de la C.A.E.

**4. HIZKUNTZA ESKAKIZUNA**
**PERFIL LINGÜÍSTICO 4º**

IVAPek egiaztatutako 4. HE
HABEren 4. maila

PL 4 acreditado por el IVAP
Cuarto nivel de HABE

\* Fotokia arrunta erantsi behar da

\* La documentación aportada debe ser fotocopia simple

\_\_\_\_\_ n 2012ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_

En \_\_\_\_\_, a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2012

Sinadura
Erregistro Zigilua
Sello de Registro
Firma